

LAN ETA ENPLEGU SAILA

EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLAN
ESTRATEGIKOA

VII PLANGINTZALDIA

2023-2027

PLAN ESTRATEGIKOAREN IKUSPEGIA

1. LEGE-EREMUA

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen **otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren** 5. artikulua honakoa xedatzen du:

Hizkuntza-plangintza egiteko, euskal sektore publikoko entitate bakoitzak honako hauek prestatu eta onartu beharko ditu:

- a) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.*
- b) Plan estrategikoak.*
- c) Kudeaketa-planak.*

Dekretu horren 17. Artikuluak, berriz, honakoa ezartzen du:

1.– Plan estrategikoa jarduketa-prozesu bat da, zeinean elementu hauek jasotzen baitira, plangintzaldi bakoitzari begira: lortu beharreko helburuak, hartu beharreko neurriak, eta euskara zerbitzu-hizkuntza gisa ere erabiliko dela bermatzeko eta lan-hizkuntza gisa areagotu eta normalizatzeko jarri beharreko bitartekoak, betiere oinarri hartuta abiaburuko egoeraren diagnostiko kuantitatibo eta kualitatiboa.

Nolanahi ere, plan estrategikoan entitatearen plantillaren egoerari buruzko azterketa bat sartu beharko da, bai eta hizkuntza-eskakizunen eta haien derrigortasun-daten xehetasuna ere.

2.– Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoa landu eta onartuko du plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, bere barne-antolamenduko araei jarraituz. Onartu ondoren, entitatearen web-atarian argitaratu beharko da.

Plana egiteko, entitate bakoitzak hasierako diagnostiko bat egin beharko du, normalizazioaren alderdi guztietan abiapuntuko egoera zein den jakiteko. Diagnostikoaren helburua izango da adierazle batzuei buruzko informazioa lortzea eta plangintzaldirako aurreikuspen zehatza egitea.

Entitateek plangintzaldiaren amaierarako adierazle horietako bakoitzean lortu beharreko helburuak zehaztuko dituzte, baita horiek lortzeko hartu beharreko neurriak eta erabili beharreko bitartekoak ere. Plan estrategikoa onartu ondoren, entitateak Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikaren eskumena duen sailari helaraziko dio haren onarpena.

Horrela, Gobernu Kontseiluak onartu du **VII. Plangintzaldirako (2023-2027) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia**, bai eta **Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak**.

Plan nagusiak ezarri bezala, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunek beraien Erabilera Planak (plan estrategikoa + kudeaketa planak) onartuko dituzte plangintzaldiaren lehen urtean, dokumentu horrek zehazten dituen jarraibideen arabera. Horrela, plan estrategiko

honetaz gain, zuzendaritza eta Lurralde Ordezkaritza bakoitzak bi kudeaketa-plan propio sortu beharko ditu plangintzaldian.

Horregatik guztiagatik, dokumentu honen bidez VII. Plangintzaldiari dagokion Lan eta Enplegu Sailaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa (2023-2027) aurkezten da.

ERAGIN-EREMUA

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 17. artikulua ezarri bezala, Lan eta Enplegu Saila da, bere osotasunean, Erabilera Planaren eragin eremua, eta ondorioz baita plan estrategiko honena ere. Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren arabera, honako hauek dira planak bere baitan hartzen dituen sailburuordetza, zuzendaritza eta administrazio-egiturak:

SAILBURUTZA /SAILBURUORDETZA	KARGUA	ZUZENDARITZA	ZUZENDARIA
Sailburutza	Idoia Mendia Cueva	Zerbitzu Zuzendaritza	María Mercedes Fernández Simancas
Sailburutza	Idoia Mendia Cueva	Kabinetearen Zuzendaritza	Silvia Fernández Pérez
Sailburutza	Idoia Mendia Cueva	Komunikazio Zuzendaritza	María Concepción Arechaga Iturregui
Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza	Elena Pérez Barredo	Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza	Ángel Lapuente Montoro
Laneko eta Gizarteko Segurantzako Sailburuordetza	Elena Pérez Barredo	Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza	Jokin Diaz Arsuaga
Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza	Alfonso Gurpegui Ruiz	Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza	Enrique José Ramos Vispo

Lan eta Enplegu Sailak bi sailburuordetza eta 6 zuzendaritza ditu. Kontuan izan behar da Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak hiru Lurralde Ordezkaritza eta hiru Lurralde Ikuskaritza dituela Lakuatik kanpo. **Guztira 292 lanpostuk** osatzen dute Lan eta Enplegu Saila.

EGOITZAK	HELBIDEA
Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia-Lakua	Donostia San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ
Arabako Lurralde Ordezkaritza	Samaniego 2-6, 01008 VITORIA-GASTEIZ
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza	Gran Vía 85, 48011 BILBAO
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza	Intxaurrondo 70, 20015 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN San Bartolome 28, 20007 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Arabako Ikuskaritza	General Álava, 10-2º, 01005 VITORIA-GASTEIZ
Bizkaiko Ikuskaritza	Gran Vía, 50-3º, 48011 BILBAO
Gipuzkoako Ikuskaritza	Urdaneta, 7-1º, 20006 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA

Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa diseinatzeko Lan eta Enplegu Sailak erabili du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia: KEMEN, zeinaren bidez erakundean euskararen kudeaketa eta erabilerari dagozkion 48 adierazle ebaluatzen diren, horietako 20 kudeaketaren ardatzaren baitan, eta gainontzeko 28ak erabileraren ardatzaren baitan (*ikusi I. eranskina*). Horietako 14 adierazlek osatzen dute Adierazleen Aginte Panela (*ikusi 2. eranskina*), eta gutxi barru indarrean sartuko den Normalizaziorako Dekretuak zehaztu bezala, adierazle horien inguruko informazioa eman beharko zaio hizkuntza normalizazioan eskumena duen organoari, bertan adierazten den moduan.

PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO URRATSAK

Autodiagnostikoa

Autodiagnostiko bikoitza egin da Lan eta Enplegu Sailaren Plan Estrategikoa osatu ahal izateko: kuantitatiboa zein kualitatiboa.

Autodiagnostiko kuantitatiboa KEMEN osatzen duten 48 adierazleak neurtu dira, eta horretarako datu-iturri bikoitza erabili da: batetik, erakundeko 270 langileei zuzendutako galdetegien erantzunak kontuan hartu dira, eta, bestetik, erakundeari zuzendutako galdetegiaren erantzunak (*ikusi III. eranskina*)

Autodiagnostiko kualitatiboa burutzeko talde eragileak hainbat arloren inguruan hausnarketa egin behar izan du: Lan eta Enplegu Sailaren euskararen egoera, orain arte euskararen erabilera normalizatzeko egindakoa, eta, azkenik, indarguneak eta hobetzekoak.

Bi diagnostiko horietako emaitzak kontuan hartuta, lehenengo eta behin erabaki da zein adierazlek osatu behar duten Lan eta Enplegu Sailaren plan estrategikoa, eta, hori erabakita, VII. Plangintzaldirako helburu kuantitatiboak zein kualitatiboak zehaztu dira, Lan eta Enplegu Sailak datozen bost urteetarako euskararen normalizazioan duen ikuspegia lortu ahal izateko.

PLAN ESTRATEGIKOA OSATUKO DUTEN ADIERAZLEAK

Lan eta Enplegu Sailaren euskara normalizatzeko plan estrategikoa 48 adierazlez dago osatuta: batetik, Adierazleen Aginte Panela osatzen duten 14 adierazleez, eta, bestetik, aurrekoez gain, Lan eta Enplegu Sailak ezinbestekotzat hartzen dituen beste 34 adierazlez.

Nahiz eta, esan bezala, 48 adierazlek osatu Lan eta Enplegu Sailaren plan estrategikoa, VII. Plangintzaldi honetan lehentasunak zehaztuko dira eta horien arabera diseinatu eta garatuko dira urteko kudeaketa planak. Izan ere, 2024 urtean kudeaketa izango da lehentasuna, eta horri zuzendutako ekintzak garatu eta burutuko dira (*ikusi 2024 urterako kudeaketa plana*).

1. ardatza. KUDEAKETA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	300
30,6	91,8	

- **KUDEAKETARAKO ERRONKAK**

Euskararen kudeaketa Eusko Jaurlaritzako ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradun politiko eta teknikoen eta langileen partehartze aktiboa baliatuta.

1.0.1. ARLOA. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	60
0	0	

- ✓ **Egoera**
 - ✓ Lan eta Enplegu Sailak ez dauka euskararen kudeaketarako sistema egituratua.
- ✓ **Egindakoak**
 - ✓ Erakunde eta sail guztietan plan estrategikoak eta kudeaketa-planak badaude eta horiei jarraipena egiten zaie (% 100), batez ere hizkuntza normalizaziorako teknikarien ekimenez.
- ✓ **Indarguneak**
- ✓ **Zer hobetuak**
 - ✓ Gaur egun dauden ez dago batzorderik eta, ondorioz, askotan kudeaketaren zamarik astunena hizkuntza normalizazio teknikariaren (HNT) gain geratzen da. Sailak plan estrategikoa eta kudeaketa planak diseinatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko sistema egituratu bat behar du, egoerari egokitutakoa.
 - ✓ Erakunde eta sailtako egitura dekretuetan jasota egon beharko lirateke jarraipen-batzordearen osaera eta funtzioak.
 - ✓ Erakunde eta sail guztietan arduradun politiko eta teknikoren batek heldu beharko lioke lidergoari.

- ✓ Euskararen kudeaketa ez dago txertatua Sailaren kudeaketa-sistema orokorrean. Funtzionamendu eraginkorrari eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari begira, helburuak % 100ean txertatuta egotea izan behar du.

✓ **Helburu estrategikoak**

Plan estrategikoak eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratuaren eraginkortasuna areagotu eta jarraipen sistematikoa egitea bai planei eta baita hizkuntza irizpideei ere.

✓ **Adierazle mailako helburuak**

1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	0	100	100

1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	0	100	100

1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	25	50	25

1.0.2. ARLOA LIDERGOA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
14,5	10,88	75

✓ Egoera

- ✓ Zuzendaritza batzordeko kideek plan estrategiko eta kudeaketa-planen nolabaiteko parte hartzea lortu da, baina horien proaktibotasuna ez da behar bestekoa.
- ✓ Sailean egiten zaie jarraipena planei, baina zuzendaritza-batzordeko kideen partehartzea jaitsi egiten da hausnarketa prozesuak edota planen diseinua egin behar denean.

✓ Egindakoak

- ✓ HPS zuzendari guztiekin bildu zen VI. Plangintzaldiaren hasieran, metodologia berria azaldu eta lidergoa lantzeko.
- ✓ Plan estrategikoak eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua sortzea eta jarraipen sistematikoa egitea bai planei eta baita hizkuntza irizpideei ere.
- ✓ Liderrentzako pilulak zabaldu ziren, euskara kudeaketan nola txertatu azaltzeko; pilula horiek bileretan eta AriGara plataformaren bidez zabaldu eta eskuragarri jarri ziren.

✓ Indarguneak

- ✓ Plan estrategiko eta kudeaketa-planen bileretako asistentzia ona da liderren artean, eta askok planen diseinuan ere parte hartzen dute.

✓ Zer hobetuak

- ✓ Prozesua goitik beherakoa izan behar da. Liderren parte-hartzeak handiagoa izan beharko luke planaren fase bakoitzean; diseinuan, garapenean eta, batez ere, jarraipenean eta egokitzapenean.
- ✓ Oraindik ere liderren inplikazioa handiagoa izan behar da, batez ere, planen jarraipenean.
- ✓ Lider teknikoei ere ardura handiagoa eman behar zaie planaren fase bakoitzaren garapenean.
- ✓ Liderren erantzukizuna areagotzen den heinean, hizkuntza normalizazioko teknikariari planen ekintzen eta betetze-mailaren ardura arindu egin beharko litzaioke.
- ✓ Ardurak zerrendatu eta argi eta garbi banatu behar dira (nork zer egin behar duen, noizko eta nola) eta horren jarraipenerako prozedura ezarri (betetze-maila neurtu). Horretarako, ezinbestekoa da prozedurak ondo zehaztea.

- ✓ Hizkuntza-normalizazioko planen lidergoan genero-desberdinkeriarik dagoen identifikatu behar da.

✓ Helburu estrategikoak

Plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua sortzea eta zuzendaritza-batzordeko kideen partehartze aktiboa sustatzea planek barne-hartzen dituzten urrats guztietan: diseinuan, garapenean, jarraipenean eta egokitzapenean.

Arlo bakoitzeko pertsonak izendatzea dagozkien adierazleei buruzko datuak biltzeko.

Langile guztiei hizkuntza-irizpideak helaraztea eta haien lanpostuan nola aplikatu behar dituzten azaltzea komunikazio eraginkorraren bitartez.

Lan eta Enplegu Saileko arduradun politiko eta teknikoak proaktibotasunez aritzea plan estrategiko eta kudeaketa-planen kudeaketan.

Lan eta Enplegu Saila eta hari atxikitutako bi erakundeen (OSALAN eta LANBIDE) arteko batzordea eratzea, ekimen amankomun koordinatuak proposatzeko eta Plan estrategikoen bilakaera aztertzeko.

✓ Adierazle mailako helburuak

1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	16,7	50	33,3

1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	25	60	35

1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	0	50	50

1.0.3. ARLOA LANGILEAK

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
54,5	32,7	60

✓ Egoera

- ✓ Langileek badaukate Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen (HOEI) bai eta saileko planaren berri ere, baina ez daude horretaz jabetuta, aitortutako datuen arabera (%54,5).

✓ Egindakoak

- ✓ Langile guztiei eman zitzaien HOElen berri eta komunikazio kanpaina ere egin zen. Guztientzat eskuragarri egon dira euskarri fisiko eta digitalak.

✓ Indarguneak

- ✓ Laneko Ikuskaritzetatik aparte, hizkuntza gaitasuna ona da.
- ✓ Jendearekiko harreman handiena duten zerbitzuetan, bereziki Lurralde Ordezkaritzetan, euskarazko zerbitzua bermatuta dago.

✓ Zer hobetuak

- ✓ Plan estrategikoaan eta kudeaketa-planetan zehaztutako eginkizunak zuzendaritzaka lantzea, langileei jakinaraztea eta horien betetze-mailari jarraipena egitea.
- ✓ Hizkuntza irizpideei dagokienez, oraindik ere ezagutza-maila ez da % 100era heltzen; beraz, aldiro-aldiro irizpideak zabaldu behar dira.
- ✓ Langileen heren batek (%32) ez du dagozkion hizkuntza-irizpideak betetzen: horretan eragin behar da.
- ✓ Oro har, ez dira zabaldu VI. Plangintzaldiko Plan Estrategikoaren amaierako ebaluazioaren emaitzak sailean. Jarraipen egoki bat egiteko, ezinbestekoa da lankideei horren berri ematea.

✓ Helburu estrategikoak

Saileko zuzendaritza-batzordeak onartutako plan estrategikoak eta kudeaketa planak langileei jakinarazi eta helburuak lortzeko lanabes guztiak haien eskura ipintzea.

Sailak planaren eta hizkuntza-irizpideen inguruko informazio zehatza ematea langileei, euren iritzia aintzat hartuz, plana ezagutu eta dagozkien betekizunak egin ditzaten.

✓ Adierazle mailako helburuak

1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	44,3	100	55,7

1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	68	100	32

1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	61,8	100	38,2

1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	18,6	50	31,4

1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	39,5	100	60,5

1.0.4. ARLOA. GAITASUNA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
36,7	-	
		Ez da haztatzen

✓ Egoera

- ✓ Saileko 141 lanpostuk (%48) ez dauka derrigortasun-datarik. Hori hala da Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren lanpostuak Estatu mailako hautaketa-proben bitartez hornitzen direlako. Laneko Ikuskaritza lehentasunezko zerbitzua da Sailaren eskumen-eraginean, eta, beraz, erabateko transferentzia

gauzatu arte, ikuskatzaile eta ikuskatzaileordeko lanpostuek ez daukate derrigortasun-datarik (orotara, 80 lanpostu). Era berean, zerbitzu horretako administrari lanpostuek, transferentzia bidez sortutakoak, Hizkuntza Eskakizunik gabe jarraitzen dute eragindako langileak adinagatik salbuetsita baitaude.

✓ **Egindakoak**

- ✓ Transferitutako lanpostuei, titularrak erretiratu ahala, derrigortasun-data jarri zaie.

✓ **Indarguneak**

- ✓ Lurralde Ordezkaritzetan jendearekiko harremana handiena duten langileek egiaztatuta daukate HE eta arreta euskaraz emateko gai dira.

✓ **Zer hobetuak**

- ✓ Saileko 141 lanpostuk (%48) ez dauka derrigortasun-datarik.

✓ **Helburu estrategikoak**

Derrigortasun datak jartzea bezain garrantzitsua da langileen benetako hizkuntza gaitasuna bermatzea; eta horretarako biderik eraginkorrena, hizkuntza prestakuntzarekin batera, langile horiek euskaraz lanean jartzea da. Horretarako, atea zabaldu beharko litzateke arduradun politikoek ere euskarazko hizkuntza prestakuntza jaso ahal izan dezaten.

✓ **Adierazle mailako helburuak**

1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	41,3	70	28,7

1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	45,4	80	34,6

1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	25	50	25

1.0.5. ARLOA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	45
25	11,25	

✓ Egoera

- ✓ Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu zirenetik aldian behin bidalketa egiten da jakinarazteko. Hizkuntzako berariazko ikastaroen berri ematen da. Erakunde mailan eta gizarte mailan egiten diren euskara sustatzeko ekimeni buruzko informazioa ematen da.

✓ Egindakoak

- ✓ HOEI zabaltzea.

✓ Indarguneak

- ✓ HOEI zabaltzea.

✓ Zer hobetuak

- ✓ Komunikazioa eta zabaltzea.

✓ Helburu estrategikoak

Langile guztiek HOEI ezagutzea eta Sailarekin harremana duten taldeek euskaraz egiteko eskubideaz jabetuta egotea.

1.0.4.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	0	50	50

1.0.4.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	83,4	10	16,6

1.0.6. ARLOA. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
62,4	37,44	60

✓ Egoera

- ✓ Hizkuntza-klausulak txertatzen dira hainbat kontratu, hitzarmen eta dirulaguntza-deialditan, baina gehienetan ez.

✓ Egindakoak

- ✓ 2021ean Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu ziren eta bertan, hizkuntza-klausulak noiz eta nola txertatu behar diren adierazten da.
- ✓ 2016ko apirilaren 26ko Aginduan adierazten da plegu administratiboetan hizkuntza-klausulak nola txertatu behar diren.

✓ Indarguneak

- ✓ Kontratazio arloa guztiz euskalduna da, eta prest dago dagokionean hizkuntza-klausulak sartzeko.

✓ Zer hobetuak

- ✓ Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzea modu sistematikoan eta horien jarraipena egitea.

✓ Helburu estrategikoak

Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezartzea eta jarraipenerako sistema zehaztea eta gauzatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

✓ Adierazle mailako helburuak

1.0.6.17	Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	25	50	25

1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	25	50	25

1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	75	100	25

1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	75	100	25

2. ardatza. ERABILERA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
43,1	301,7	700

- ERABILERARAKO ERRONKAK

Eusko Jaurlaritzak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskarazko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea.

2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
67,9	142,59	210

2.1.1. ARLOA. IRUDIA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
73	30,66	42

- ✓ **Egoera**
 - ✓ Gaur egun, ele bietan dauden errotulu finkoen kopurua % 100 da.
 - ✓ Agerraldi instituzionalen % 10a egiten da euskaraz edo ele bietan.
- ✓ **Egindakoak**
 - ✓ Sistemizatuta dago argitaratu behar den guztiak egon behar duela ele bietan.
- ✓ **Indarguneak**
 - ✓ Hizkuntza paisaia ele bietan dago ia osorik.

✓ **Zer hobetuak**

- ✓ Agerraldi instituzionaletan, euskararen presentzia eta erabilera areagotu egin behar da.

✓ **Helburu estrategikoak**

Behin-behineko errotulazioan arreta ipintzea gaztelania hutsezko errotulurik jar ez dadin.

Agerraldi instituzionaletan euskara eta gaztelaniaren erabilera orekatua bermatzea.

Sailak irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak betetzea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta hizkuntza berdintasuna lortzeko.

✓ **Adierazle mailako helburuak**

2.1.1.21	Sailaren errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.		
	Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
	100	100	0

2.1.1.22	Sailaren argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.		
	Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
	100	100	0

2.1.1.23	Sailak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	10	40	30

2.1.1.24	Sailak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.		
	Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
	100	100	0

2.1.2. ARLOA. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
66,7	112,06	168

- ✓ **Egoera**
 - ✓ 10etik 4an euskarazko eskaintza aktiboa egiten zaie herritarrei
 - ✓ Herritarrek dokumentuak euskaraz aurkezten dituztenean % 100ean euskara hutsez edo ele bietan jasotzen dute erantzuna.

- ✓ **Egindakoak**
 - ✓ Hizkuntza-irizpideak zabaldu ditugu, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatu daitezkeen.

- ✓ **Indarguneak**
 - ✓ Euskarazko eskaerei euskaraz erantzuten zaizkie.

- ✓ **Zer hobetuak**
 - ✓ Zerbitzu-hizkuntza izanda, herritarren hizkuntza-eskubideak % 100ean bermatu behar dira. Oraindik ere, ahozkoan, langileen %44k eskatzen dio herritarri hizkuntza aldatzeko.
 - ✓ Eskaintza aktiboa sustatzea lehen hitza eta lehen esaldia euskaraz esanez, edo euskaren aktibaziorako markaren bat erabilita.
 - ✓ Euskararen erabilera ez-sexista eta inklusiboa bultzatu behar da.

- ✓ **Helburu estrategikoak**

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta hizkuntza berdintasuna lortzea, herritar horiek Sektore Publikoarekin harremanetan jartzen direnean.

Herritarrekin ohiko harremana duten lanpostuetako langileek % 100ean artatzea herritarrek euskaraz.

✓ Adierazle mailako helburuak

2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	38,6	60	21,4

2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	56	90	34

2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.		
	Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
	50	75	25

2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.		
	Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
	100	100	0

2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.		
	Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
	100	100	0

2.1.2.30	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	21	30	9

2.1.2.31 Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.		
Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
6,6	20	13,4

2.2. ARLOA. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
32,7	160,23	490

2.2.1. ARLOA. BARNE-HARREMANAK

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
21,6	31,75	147

- ✓ **Egoera**
 - ✓ 10 bileratetik 1 egiten da euskaraz.
 - ✓ Barruko idatzizko komunikazioen artean, % 53,9 euskaraz edo ele bietan egiten da.
- ✓ **Egindakoak**
 - ✓ Hizkuntza-irizpideak zabaldu ditugu euskara lan-hizkuntza ere bihur dadin.
 - ✓ Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketak (Euskaraldia) gero eta hedatuago daude langileen artean.
- ✓ **Indarguneak**
 - ✓ Erretiroagatik pertsonal-aldaketak egon dira, eta sartu diren langileak joera handiagoa dute euskararekiko.
- ✓ **Zer hobetuak**
 - ✓ Oraindik ere, erakunde barruko gaztelania hutsezko idatzizko lan-komunikazioa % 46,1ekoa da.

- ✓ Lankideen arteko ahozko harremanen % 80,1 gaztelania hutsez da.
- ✓ Lan-bilerak gaztelania hutsez egiten dira % 90,4an.

✓ **Helburu estrategikoak**

Barne-harremanetan euskararen erabilera areagotzea eta, aukera dagoenean, lana euskara hutsez egitea sustatzea.

✓ **Adierazle mailako helburuak**

2.2.1.32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	9,6	25	15,4

2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	19,9	40	20,1

2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	21,4	40	18,6

2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	53,9	70	16,1

2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	10	20	10

2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	0	10	10

2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	52,2	100	47,8

2.2.2. ARLOA. KANPO-HARREMANAK

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	98
64,4	63,11	

- ✓ **Egoera**
 - ✓ Sektore Publikoko erakundeekin euskarazko ahozko harremana % 27,4koa da; eta enpresa pribatuekin, aldiz, % 18,3koa.
 - ✓ Sektore Publikoko erakundeekin ele bietako idatzizko harremana % 100ekoa da; eta enpresa pribatuekin, aldiz, % 90ekoa.

- ✓ **Egindakoak**

- ✓ **Indarguneak**
 - ✓ Sektore Publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuekin ele bietako idatzizko harremana % 90tik gorakoa da.

- ✓ **Zer hobetuak**
 - ✓ Sektore Publikoko erakundeekin euskarazko ahozko harremana % 27,4koa da; eta enpresa pribatuekin, aldiz, % 18,3koa.

- ✓ **Helburu estrategikoak**

Hizkuntza irizpideen arabera, Sektore Publikoko erakundeekin eta enpresa pribatuekin harremanak ohikotasunez euskaraz izatea.

Hizkuntza-klausulak betearazi behar dira, enpresa pribatuekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko.

✓ **Adierazle mailako helburuak**

2.2.2.39		Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.		
		Hasierako egoera %	Aurreikuspena %.....	Aldea %
		Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
		27,4	50	22,6

2.2.2.40		Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.		
		Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
		Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
		100	100	0

2.2.2.41		Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.		
		Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
		Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
		18,3	30	11,7

2.2.2.42		Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.		
		Hasierako egoera % ...	Aurreikuspena % ...	Aldea % ...
		Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan	Euskara / Ele bietan
		90	100	10

2.2.3. ARLOA. PRESTAKUNTZA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	73.5
24,2	17,79	

✓ Egoera

- ✓ Langileen % 11,7k jasotzen du prestakuntza orokorra euskaraz.
- ✓ IVAPeko ikastaroen % 24,40 euskaraz eskaintzen da.

✓ Egindakoak

- ✓ Onartutako hizkuntza-irizpideetan 3. eta 4. hizkuntza-eskakizuna daukaten langileei prestakuntza euskaraz eskaintzea hobesten da.

✓ Indarguneak

- ✓ Eusko Jaurlaritzak urtean prestakuntzarako ematen dituen orduez gain, langileek euskara-maila hobetzeko ikastaroak aukeratzen badituzte, malgutasunez jokatu ohi da ikastaro horiek zenbatzeko orduan.

✓ Zer hobetuak

- ✓ Euskaraz egiten diren ikastaroen kopurua nabarmen igo behar da.
- ✓ IVAPek euskaraz antolatzen dituen ikastaroak askotan bertan behera geratzen dira langile nahikorik ez duelako izena eman. Iaz, 224 ikastaro antolatu ziren euskaraz eta 185 burutu ziren; beste 39etan ez zen izen-emate minimora heldu.
- ✓ Ahal dela, 3. eta 4. HE daukaten langileak, euskarazko prestakuntzara bideratu behar dira.
- ✓ Baliabide informatikoei buruzko ikastaro eta aurkezpenak gaztelaniaz ematen dira ia gehienetan, baita langile guztientzako derrigorrezkoak direnak ere. Gauza bera gertatzen da gai oso "teknikoekin" ere.
- ✓ Zereginen arabera, langile multzo edo langile bakoitzari berariazko prestakuntza plana egin behar zaio; banakako hizkuntza-beharrak aztertu behar dira eta, horren arabera, bananako prestakuntza planak sustatu.

✓ Helburu estrategikoak

Lanpostu bakoitzaren funtzio komunikatiboetan oinarrituta, erakundeak laguntza eta baliabideak ematea langileek euskaraz lan egin dezaten.

Erakundeak euskarazko prestakuntza sustatzea erakundeak berak antolatzen duenean. Prestakuntza euskaraz eskaintzea eta beste erakunde batek antolatutakoa jaso behar dutenean, euskarazkoa aukeratuta.

✓ Adierazle mailako helburuak

2.2.3.43		Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.		
Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)		Aldea (%)
Euskara		Euskara		Euskara
24,4		40		15,6

2.2.3.44		Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.		
Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)		Aldea (%)
Euskara		Euskara		Euskara
11,7		30		28,3

2.2.3.45		Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.		
Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)		Aldea (%)
Euskara		Euskara		Euskara
25		100		75

2.2.4. ARLOA. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	
29,6	21,76	73.5

✓ Egoera

- ✓ Ordenagailu berriak instalatzen direnean, gehienetan, aplikazioak gaztelaniaz ezartzen dira nahiz eta HOElen arabera euskaraz egin behar den. Gainera, eguneraketak egiten direnean, askotan, sistematikoki gaztelaniaz egiten dira.
- ✓ Langileen eskura dauden euskarazko aplikazio informatikoei 20 puntu egin dute gora.
- ✓ Langileek erabiltzen dituzten euskarazko aplikazio informatikoei 10 puntu egin dute behera.

✓ Egindakoak

- ✓ Hizkuntza-irizpideetan jasota dago programa, aplikazio, datu-base edo tresnen euskarazko bertsioa instalatuko zaiela 2. HE eta handik gorako euskara maila egiaztatuta duten langileei.

- ✓ **Indarguneak**
 - ✓ Berariaz sortzen diren aplikazio informatikoak ele bietan sortzen dira.
- ✓ **Zer hobetuak**
 - ✓ Sustatu egin beharko litzateke langileek sistema eragileen eta software estandarraren euskarazko bertsioak erabiltzea, eta horiei eustea.
- ✓ **Helburu estrategikoak**

Erakundeak baliabide informatikoak euskaraz sortzea, garatzea eta euskaraz erabilgarri daudenak instalatzen direla bermatzea. Horrez gain, neurriak hartzea baliabide informatikoak euskaraz erabil daitezen.

✓ **Adierazle mailako helburuak**

2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	38,9	50	11,1

2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	20,5	30	9,5

2.2.5. ARLOA. SORTZE-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehienezko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	98
27,7	27,15	

- ✓ **Egoera**
 - ✓ Euskara hutsez edo ele bietan sortzen diren dokumentuak % 27,7 dira.
- ✓ **Egindakoak**
 - ✓ Itzultzaile neuronalaren aurkezpenak egin ziren, honen erabilera sustatze aldera. Langileei triptiko bat ere banatu zitzairen nola erabili azaltzeko.
 - ✓ Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan ezarritakoaren arabera, itzultzaile neuronalen erabiltzaileak izango dira sortu dituzten testuen eta testu horiek zabaltzeak izan ditzakeen ondorioen erantzule zuzenak.
- ✓ **Indarguneak**
 - ✓ Itzultzaile neuronalak asko errazten du langileak berak bi hizkuntza ofizialetan egitea dokumentua.
 - ✓ Idazki laburrak norberak itzultzen ditu neuronalaren laguntzarekin.
- ✓ **Zer hobetuak**
 - ✓ Langileek euskara hutsean sortzea sustatu behar dugu, tramitazio guztia euskaraz egin daitekeenean.
 - ✓ Plangintzaldi honetako erronka da zehaztea zein itzulpen mota geratuko diren IZOren eskuetan, (Itzulpen Zerbitzu Ofiziala), eta zein testu euskaratu beharko diren sailean, baliabide propioak erabilia.
- ✓ **Helburu estrategikoak**

Erakundeak neurriak hartzea euskaraz sortzen diren dokumentuak urtetik urtera gehiago izateko.

Idazketa elebidunaren prozedura abian jartzea, Jaurlaritzako araugintzaren kalitatea eta legezketasuna bermatzeko.

- ✓ **Adierazle mailako helburuak**

2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.		
	Hasierako egoera (%)	Aurreikuspena (%)	Aldea (%)
	Euskara	Euskara	Euskara
	27,7	50	22,3

I. eranskina. KEMEN

KUDEAKETA

1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

- Erakundeak plan estrategikoa eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.
- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.

2. LIDERGOA

- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.
- Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, plan estrategikoan eta kudeaketa planetan zehaztutako moduan.

3. LANGILEAK

- Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.
- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
- Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.
- Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.
- Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.

4. GAITASUNA

- Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.
- Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.
- Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.

5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

- Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.

- Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du.

6. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

- Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
- Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetao hizkuntza-klausulen betetze-mailari.
- Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

ERABILERA

ZERBITZU-HIZKUNTZA

1. IRUDIA

- Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.
- Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.
- Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.
- Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.

2. HERRITARREKIKO HARREMANAK

- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
- Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
- Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
- Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
- Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.
- Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.
- Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.

LAN-HIZKUNTZA

3. BARNE-HARREMANAK

- Lan-bilerak euskaraz egiten dira.
- Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
- Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.
- Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.

- Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian.
- Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian.
- Lanari loturiko hizkuntza-paisaia euskaraz dago.

4. KANPO-HARREMANAK

- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.
- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.
- Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.
- Enpresa pribatuekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.

5. PRESTAKUNTZA

- Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.
- Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.
- Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.

6. BALIABIDE INFORMATIKOAK

- Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.
- Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak.

7. SORTZE-HIZKUNTZA

- Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.

II. eranskina. Adierazleen Aginte Panela.

KUDEAKETA

1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.

2. LIDERGOA

- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.

3. LANGILEAK

- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.

4. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

ERABILERA

ZERBITZU-HIZKUNTZA

1. HERRITARREKIKO HARREMANAK

- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
- Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
- Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
- Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
- Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.

LAN-HIZKUNTZA

2. BARNE-HARREMANAK

- Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
- Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.

3. KANPO-HARREMANAK

- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.

4. SORTZE-HIZKUNTZA

- Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.

III. eranskina. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOAREN EMAITZAK (47 ADIERAZLEAK)

KUDEAKETA % 30,6 ; 91,8	ADIERAZLEA	Hasierako egoera (%)	Arloaren % eta puntuazioa
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	0	0 ; 0
	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	0	
LIDERGOA	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	16,7	% 14,5 ; 10,88
	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.	25	
	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan.	0	
LANGILEAK	Langileei ematen zaie informazioa erakundeak erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	44,3	% 54,5 ; 33
	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	68	
	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.	61,8	
	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.	18,6	
	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz.	39,5	
GAITASUNA	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	41,3	% 36,7
	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	45,4	
	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	25	
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei	0	% 25 ; 11,25
	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.	83,4	
HIZKUNTZA KLAUSULAK	Kontratuaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	25	% 62,4 ; 37,44
	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	25	
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuaren hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	75	
	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	75	

ERABILERA % 43,1 ; 301,7		ADIERAZLEA	Hasierako egoera %		Arloaren % eta puntuazioa		
ZERBITZU HIZKUNTZA	IRUDIA	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	100	Finkoa EU/ELEB: 100	% 73 30,6		
		Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	100	Aldi baterakoa/ikus-entzunezkoak EU/ELEB: 100 Argitalpenak EU/ELEB: 100			
		Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	10	Iragarki/publizitatea EU/ELEB: 100			
		Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	100	Albisteak ELEB: 100 Herritarrentzako dokumentuak ELEB: 100 Herritarrentzako tramiteak ELEB: 100 Sare sozialak EU/ELEB: 100			
	HERRITARREKIKO HARREMANAK	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	38,6			% 66,7 112	
		Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	56				
		Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	50	Ekitaldiak: 70 Ikastaroak:100			
		Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	100				
		Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	100				
		Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	21				
		Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	6,6				
	HIZKUNTZA LAN	BARNE-HARREMANAK	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	9,6			% 21,6 31,75
			Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	19,9			
Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da			21,4				

	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	53,9		
	Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian	10		
	Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian	0		
	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	52,2		
KANPO-HARREMANAK	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	27,4		
	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	100		% 64,4
	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	18,3		63,11
	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	90		
PRESTAKUNTZA	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	24,4		% 24,2
	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	11,7		17,79
	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei	25		
BALIABIDE INFORMATIKOAK	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	38,9		% 29,6
	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak	20,5		21,76
SORTZE-HIZKUNTZA	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak	27,7		% 27,7 27,11

IV.eranskina. Puntuazio orokorra.

	Hasierako egoera %	Hasierako puntuazioa	Gehienezko puntuazioa
1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	0	0	60
2. LIDERGOA	14,5	10,88	75
3. LANGILEAK	54,5	33	60
4. GAITASUNA	36,7	-	-
5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	25	11,25	45
6. HIZKUNTZA KLAUSULAK	62,4	37,44	60
KUDEAKETA	30,6	91,8	300

	Hasierako egoera %	Hasierako puntuazioa	Gehienezko puntuazioa
1. IRUDIA	73	30,6	42
2. HERRITARREKIKO HARREMANAK	66,7	112	168
ZERBITZU-HIZKUNTZA	67,9	142,6	210
3. BARNE-HARREMANAK	21,6	31,75	147
4. KANPO-HARREMANAK	64,4	63,11	98
5. PRESTAKUNTZA	24,2	17,79	73.5
6. BALIABIDE INFORMATIKOAK	29,6	21,76	73.5
7. SORTZE-HIZKUNTZA	27,7	27,11	98
LAN-HIZKUNTZA	37,2	160,23	490
ERABILERA	43,2	302,83	700